



TOPATU

EHZ festibalak "auzolan erraldoia" eskatu du

Gorka Bereziartua / Urko Apaolaza

@boligorria / @urkoapaolaza

"Pena handiarekin" hartu dute jaialdia ezeztatzeko erabakia Euskal Herria Zuzenean-eko antolatzaileek, baina aseguru etxeekin, festibalari laguntzen dioten boluntarioekin eta teknikariek hitz egin ondoren ondorioa argia zela esplikatu zuten ostiralean egindako prentsurrean: ezin zutela jaialdian parte hartuko zutenen segurtasuna bermatu.

Hemendik aurrera zer egin erabakitzea "denon ardura" dela esan dute antolatzaileek eta gogora ekarri dute festibalaren geroari buruzko gogoeta abian dela, zeregin horretan ariko direla aurrerantzean.

"Elkartasun erauntsia" beharko dutela ere azpimarratu zuten jendaurrean, "bakoitzak bere modura" lagundu dezakeela: "Desmuntaketa lanetan laguntzeko esku kolpe bat emanez, bakoitzak bere herrian EHZren aldeko ekitaldi bat antolatuta, edo gure banku kontuan elkartasun ekarpen bat eginez", adierazi dute. "Antolatu dezagun EHZren aldeko auzolan erraldoi bat".

1996tik antolatzen den jaialdia ez dago momentu ekonomiko onenean. 2014an ekaitz batek jaialdia hondatu zuen eta zulo ekonomikoa ekarri zion. Iazko abenduan, aurtengo jaialdiko kartela aurkeztu zuten egunean, azaldu zuten 100.000 euroko zorra daukala festibalak. Horri aurre egiteko crowdfunding kanpaina jarri zuten abian, 30.000 euro lortzea helburu.

Nolanahi, garbi utzi dute EHZ hiru eguneko festibala baino gehiago izan dela beti: "Gure baloreetan oinarrituz, Euskal Herria Zuzenean elkarteak aitzina segitu behar du, eta segituko du; bizirik, bat eginik eta geroari so indarrez beterik".

Elkartasun keinuak edonon

Jaialdia bertan behera utzi eta berehala iritsi zaizkio EHZri elkartasun keinuak, bai sare sozialetan eta bai ekitaldien bidez ere. Donostiako Egia auzoko Bukowski tabernan, esaterako, hamar bat musikari eta talderen kontzertua inprobisatu zuten igandean festibalaren alde. Desmuntaketa lanetan, berriz, hamaika lagun aritu da eta "esku garbitu ahal den guztia" kendu dute jadanik Lekorneko Garrotik.

EKONOMIAREN TALAIAN

AHT: lotsak eta erantzukizunak



Juan Mari Arregi

Gobernu orok herritar guztien alde egin behar du, ez soilik aukeratu duten horien alde. Jendarte horretan sorturiko arazoak eztabaidatu egin behar-ko lirake inongo erabakirik hartu aurretik. Baina EAEko gobernua ez dirudi horretarako asmorik duenik, alderantziz, jendarteko zati txiki baten zerbitzura jarri dela ematen du. AHTrekin dugun arazo larriaz ari naiz, zergadunaren milaka milioi euro erabiltzen ari baitira bere etorkizuna oraindik ezezaguna zaigun arren. Behin eta berriz aldatu dute AHT martxan jartzeko eguna, eta behin eta berriz hautsi dute hitzemandakoa.

Joan den astean Eusko Jaurlaritzak, bost hilabete lehenago gonbidatu bazuten ere, ez zuen AHTri buruzko mahai-inguru batean egon nahi izan. Katedradun, ingeniari eta sindikalistek hartu zuten parte. Nolan- loka lotsa behar duen izan administrazio horrek, *Euskal Y*-aren aldeko jarrera defendatu nahi ez izateko... Deseroso eta lotsatuta ote dago halako diru xahutzearen aurrean? Obrek segitzeko eta trena martxan jartzeko eguna behin eta berriz atzeratzen ari delako agian? Beldurra al dio beste mota batzuetako iritziei aurre egiteari, jakinik 52 milioi euro gehiago beharko direla 11 tuneletan sorturiko arazoak konpontzeko? Ez al ditu entzun nahi proiektu milioidun hau zementuaren lobbyaren eta ingeniariaren zerbitzura besterik ez dagoela diotenen arrazoi ekonomiko eta teknikoak?

Lotsagabekeria bat da, murrizketak sozialak hain handiak diren garaiotan Eusko Jaurlaritzak gure diru publikoa erabiltzen segitzea azpiegitura antisozial, antiekonomiko eta ingurumenaren kontrako honetan gastatzeko. Eta gainera, iritzi publikoaren aurrean ez du aurpegirik eman nahi bere jarrera justifikatzeko. Lotsa eta erantzukizun gehiegi dira horiek ezkutatu ahal izateko.